


Euskal AEko eraikuntza kostuak %1,0 gehitu ziren 2019ko otsailean aurreko hilaren aldean

2018ko otsailaren aldean %3,5 gehitu ziren kostuak

2019ko otsailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %1,0 gehitu zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %3,5 igo zen, EUSTATEN datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua lehengoan da (%0,0); lehengaien kostua %1,3 gehitu da.

Etzegintzaren azpisektorea %1,2 gehitu da otsailean bere lehengaietan; Obra Zibila, %1,5. Urte artean, Etzegintzan lehengaien kostuak %3,8 gehitu dira eta Obra Zibilean %4,0.

Sektoreak kontsumitutako lehengaietan urte artean (2019ko otsaila 2018koaren aldean) prezioen hazkunde nabarmenak hauek izan dituzte: *Petrolio fintzea* (%8,2), *Industria ez-metalezkoa* (%6,5) eta *Mineral ez-metalezkoak* (%5,2). Alderantzizko norabidean, lehengaietan murrizketa handienekin edo hazkunde txikienekin azken hamabi hiletan: *Altzarien ekoizpena*, behera %0,2 egin duena, *Kautxu eta plastikoa*, %0,2ko igoerarekin, eta *Metalurgia*, %0,9ko igoerarekin.

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2019ko Otsaila

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	106,9	1,0	3,5	2,3
Eraikinak	106,9	1,0	3,5	2,3
Obra zibila	106,7	1,1	3,6	2,6
LEHENGAI	105,4	1,3	3,8	2,4
Eraikinak	105,4	1,2	3,8	2,3
Obra zibila	105,1	1,5	4,0	2,6
LAN-ESKUA	112,3	0,0	2,3	2,3

Oinarria 2010=100
(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62